

Frantxua Maitia

"Euskal Departamendua eraikitzea beste *ideia* batzuk bezain *errepublikarra* da"

(PSF) Frantziako Alderdi Sozialistako partaidea

Donibane Garazi atzean utzi eta 21 urtez alkate izan den Izpurako Herriko Etxean luzatu digu bostekoa eta ongietorria. Hauteskundeetako emaitzen ondoren goibel egongo zelakoan, alderantziz, baikor eta solasteko prest azaldu da

EZPALA ezpala@aldaketa16.info

Eguzkiak gogotik berotzen du nahiz eta egun batzuk lehenago Ipar Euskal Herriko zenbait bazterretan euria galanki bota. "Biziki uholde latzak izan dituzte Saran, Senperen eta Azkainen, baita Baionan ere" dio Frantxua Maitiak.

"Nik ere pairatu nuen euri jassa. Lionel Jospinek Bordelen eman zuen mitin batetik itzultzen ari nintzela, goizeko ordu bi eta erdietan euria hasi zuen. Ez nuen ordura arte inoiz horrelakorik ikusi. Bidean ia-ia istripua ere izan nuen". Halere, ia ahantzi du hura Frantxuak eta Sarkozyren garaipenak ekar lezakeen ekaitz politikoak gehiago kezkatzen du sozialista.

Nicolas Sarkozyk %53,06; Ségolène Royalek %46,95. Ez dut uste azken emaitza oso laket izango duzunik, ezta?

Ez zabilta oker, hobe alderantziz izan balitz. Esperantza nuen Ségolène Royalek irabazi zezakeela baina lehen itzuliko emaitzak ikusi ondoren, biziki zaila izango zela ohartu nintzen. Ezker osoa bilduta ez zuen kopuru oso duina lortu, apal-apala baizik. Beste talde ezkertiarrek, komunistek, berdeek... indar txikia izateaz gain ez dute influentzia askorik. Alderdi Sozialista da, ezkerrean zerbait egin dezakeena.

Baina Ségolène Royal ez zen des-

kuidatu eta bigarren itzulia biziki ona egin zuen, gauzak behar ziren bezala esan eta jakinaraziz. Orotara emaitza ez da batere txarra izan. Bayrou zentristarekin debate ona izan zuen eta herritarrak mugiarazi zituen.

Ez da ahantzi behar, Ségolène Royalen hautagaitza duela sei hilabete eskas aukeratu zela. Frantziako Lehendakarietzarako Hauteskundeetan, urrunetik hasi behar da ibilia. Sarkozyk ia bost urte eman ditu horretan. Aspaldi hasi zuen hauteskunde kanpaina. Alderdi Sozialistak orain arte beti izan du lider errespetatu bat baina azken hauteskundeetatik bost urte igarotzen utzi ditugu alferrik, hots, lehenago behar genuen atera gure hautagaia eta denbora hartu eza gutarazi eta prestatzeko.

Beste gauza bat pasa da hauteskundeetan eta ez dugu aski esan, erran badugu ere. Azken hogeitau urtetan tabu errepublikano bat egon da indarrean Frantzian. Hau da, ez zela aliatu behar eskuin mu-



Ségolène Royal ez zen deskuidatu eta bigarren itzulia biziki ona egin zuen, gauzak behar ziren bezala esan eta jakinaraziz

turrarekin, Fronte Nazionalarekin. Bai udaletan, bai departamenduetan, bai erregioetan, baztertu egin izan dugu joko demokratikoa egin ez gainontzeko alderdiok: eskuinak, zentroak zein ezkerrak.

Sarkozyk, hausturaren hautagaia dela esan arren jendeak ez du konprenitu zer esan nahi zuen hitz hori aipatzen zuen bakoitzean. Hartu ditu Fronte Nazionalako ideia guztiak, esanez, ideia horiek eskuin osoarenak direla. Beraz, Fronte Nazionalaren eskuineko ideologian sartu du.

Eta zergatik indartu da zentroa? Konprenitu dutelako Sarkozyk

hautsi nahi duela Frantziako bizitza politikoan dagoen tabua. Sarkozyk bide arriskutsu batean sartarazi du Frantzia eta jarrera horrek arrisku handiak ekarriko dizkio demokraziari. Ez dut erran nahi Sarkozy demokrata ez denik, baina irabazteko hara zer egin duen.

Boto-emaielen adinak ere zeresana izan al du Sarkozyren hautaketan?

Ohargarri da Ségolène Royal irabazle izan dela adin klase guzietan, 65 urtetik gorako pertsonetan izan ezik. Horien %75ek, inkestean

arabera, Sarkozyren alde bozkatu zuten trumilka. Zergatik? 1981ean François Mitterrandek erretiroen erreforma handia bultzatu zuenez geroztik, pertsona horiek abantaila handiak izan dituzte.

Orain, aldiz, gazteekin ez dute solidaritaterik erakutsi eta Sarkozyri eman diote bozka. Gazteen gehiengoak, berriz, Ségolène Royalen alde egin du, esperantzaren hautagaia baitzen.

Nicolas Sarkozyk adinekoen botoak jaso ditu, antza; boto mordoak da hori.

Frantzia eskuintzen eta zahartzen ari da. Ipar Euskal Herrian, aldiz, albisteak baikorrak izan dira sozialistentzat. Behin ere ez genuen bigarren itzuli batean hain emaitza onik lortu. Horrek esan nahi du, zentristen gehiengoak Ségolène Royalen alde egin duela bigarren itzulian. Beste egoera batean, zentrotokoen eskuin bozkatuko zuten, baina Sarkozy are eskuindu denez, askok Royalen alde egin dute. Jorera horrek erakusten du herritar aunitz daudela askatasuna, demokrazia eta elkartasuna zaintzeko prest.

Frantziako Alderdi Sozialistak (PSF) norekin ditu arazoak, eskuinarekin edo bere baitan?

Lionel Jospinen hautagaitzaren ondoren bi kongresu izan ditugu, baina ez ditugu gauzak aski ondo prestatu. Eta guk ez badugu batasunik erakusten nola babestuko gaituzte herritarrek? Horrez gain immigrazioaren, erretiroen... aferrak ez ditugu behar den bezala argitu.

Dominique Strauss-Kahn eta Laurent Fabius sozialistak ez dira mututu Ségolène Royalenek lortutako emaitzekin. Bereak eta bi esan dituzte.

Gure hautagaia, militanteen botoen eta debate publiko baten ondoren hautatzea erabaki genuen. Ez-



tabaida biziki ona izan da eta denek onartu dugu hartutako bidea. Ségolène Royal hautagai izendatu ostean, hauteskunde kanpaina, herritarrekin eztabaida parte hartzaileak nahi zituela esan zuen eta Frantzia barrena horretan ibili zen.

Halere, urrats bat falta izan zaigu: hautagaiaren inguruan, kolektiboki, ez dugu elkartasunaren irudia eta alderdiaren batasuna behar den bezala adierazi.

Hautagai sozialisten arteko eztabaida publikoa, beroa izan zen. Ez al da hobe trapu zikinak etxean garbitzea, denen aurrean baino?

Zuzen zaude. Horregatik diot sozialistok ez genuela denbora bat guretzat hartu eta Ségolène Royali elkartasun osoa adierazi; alderdiaren batasuna sendotu eta adierazteko, alegia. Bateginik azaldu, nahiz eta ideia ezberdinak izan. Ez dugu asti askorik izan egitasmoa hori egiteko: ez da alderdiaren arazo guztiak kanporatzea komeni. Hurrengo batetarako ikasgaia ikasi dugu.

Frantzia ezker oso banandua dago: LCR, PCF, PT... Batasun sendoago bat lortzeko asmorik?

Nire ustez diputatuen hauteskundeak igaro ondoren beharko da eskaintza bat egin gobernatu nahi duten alderdiekin. Ezker muturrak, LCRk, troskistak... garbi esan dute gobernatzeko ez dela beraien xedea: ideiak politikoak zabaldu eta borrokan jarraitu nahi dute. Ez dute gobernatu nahi.

Baina Alderdi Komunista edota berdeekin behar genuke Alderdi Sozialista eraberritu. Hau da, nahi dutenekin; baita Boverekin ere. Ez naiz inor baztertzearen aldekoa eta ezkerrek bozketetan ahalik eta emaitza hoberenak lortu eta erresponsabilitatez Frantzia gobernatzeko da sozialisten helburua.

Zure herrian, Izpuran, emaitzak ez



dira batere txarrak izan sozialistentzat bigarren itzulian: Sarkozyk, 167 boto, Royalek, 228.

Kontent naiz nire herrikideekin. 1995ean Jacques Chirac, nagusitu zitzaion Lionel Jospini Izpuran. 2002an sozialistak ez ginen bigarren itzulira igaro. Inguru honetan ez da Ségolène Royal garaitu, baina behin ere ez zuen ezkerak era honetako hauteskundeetan hain emaitza onik lortu: %48 erdietsi zuen. Gora egin du nabarmen.

Zer dela eta hain parte hartze handia?

Arrazoi ezberdinak izan dira historian zehar parte hartzea dela-eta, baina oraingo honetan frantziar guztiak interesatu dira. Eskuin zein ezker. Pozik hartzen dut hauteskundeetan izan den parte hartzea. Zenbait urtetan frantsesek ez zutela politikan interesik esan izan da. Orain guztiz kontrakoa erakutsi dugu.



Pozik hartzen dut izan den parte hartzea. Zenbait urtetan frantsesek ez zutela politikan interesik esan izan da. Orain guztiz kontrakoa erakutsi dugu



Eta emaitzak jakinarazi bezain laster sortu ziren istiluen inguruan, zer iritzi duzu?

Tokian tokiko ekintzak izan ziren. Ez dut uste nahaskeria zabaltzeko asmo jakinik zegoenik. Alderdi guziek gaitzetsi dituzte ekintzak. Nire ustez ez dute zerikusirik duela urte eta erdi Frantziako hirietako auzo txiroetan egon ziren istiluekin.

'Hirugarren ahaleginean, bai' esaten da. Baina oraingoa ere sozialismoak ez du garaipena eskuratu.

Ezkerrak gobernatu izan du Frantzia, nahiz eta presidente sozialistarik ez izan. Hurrengorako prestatuko dugu. Halere, bizitza

demokratikoaren nondik norakoa erakusten duen adibidea da egoera hau.

Ekainaren 10ean hauteskunde orokorrak izango dira Frantzian. Ségolène Royalek lortu dituen emaitzen ostean, zer gertatuko da?

Egun, diputatuen ganbaran ditugun eserlekuak errepikatu ahal izango bagenitu, pozik nintzateke.



Sarkozy bezeria baten morroi eta zaindaria da; berarekin ziur nago aberats frantsesek abantaila gehiago izango dituztela

Bestalde, François Bayrou zentristak zirkunskripzio guztietan presentatuko ditu hautagaiak baina presidente gai bezala lehen itzulian lautan soilik garaitu zela ikusita, ez dut uste oso emaitza onik lortuko duenik.

Zer nolako aginte makila jarriko du dantzan Nicolas Sarkozy presidentea?

Esan du hitz emandakoa beteko duela, eta promes egin dituen neurriekin ez nago oso ados. Lege asko gogortu egingo ditu, bereziki, inmigrazioa. Lanaren inguruan ere mintzatu da; bere diskurtsoan zalantza handiak ikusten ditut. Sarkozy lege asko gogortuko ditu; bestalde, grebetako gutxieneko zerbitzuak begiz jota ditu.

Royalek eta Sarkozyk izan zuten eztabaidan, enplegu gehiago sortu behar zela esan zuen Royalek; batak bat gazteentzat, lehenbailehen lanean has daitezten. Sarkozy bezeria baten morroi eta zaindaria

da; berarekin ziur nago aberats frantsesek abantaila gehiago izango dituztela.

Frantzian badugu "ezkutu fiskala" dezente apaldu egin nahi du, beraz, irabazi asko dituztenen mesederako izango da. Aberatsek bere ondasun guztiak ondorengoei traba askorik gabe pasako dizkiete.

Hauteskundeetan atarian hautagai batzuk izan ziren Ipar Euskal Herrian: Jose Bove, Dominique Vynet ekologista eta Ségolène Royal. Zure alderdiko hautagaiak zer jarrerara izan zuen esan zuen Iparraldeko arazoetan aurrean?

Hona etorri zenean arrantzale elkarteekin bilera bat prestatu nuen. Beraiek zituzten kezkek, galderak... jakinarazi nizkion. Horrez gain Euskal Departamendua eta euskarari buruz era galdetu zioten bere egonaldian.

Euskarari buruz garbiki esan zuen Frantziak sinatua zuela Hizkuntza Gutxituen Eurokarta eta parlamentuak hori berretsi ez bazuen ere, berak berrestearen alde lan egingo zuela. Hots Eurokarta bere osotasunean Frantziak onartu eta hizkuntza zapalduak kontutan hartuak izan daitezten. Gure kasuan, euskara. Jarrera eskuzabala: Sarkozyk ez du halakorik esan.

Euskal Departamenduari buruz esan zuen ez zegoela ados departamendu berri bat sortzearekin Ipar Euskal Herriak Garapen eta Hautetsien Kontseiluei esker oreka baitzuen. Hots, ez zuela departamendu berri baten premia ikusten.

Euskal Departamendua eskatzeko erreferenduma egiteko Baterak egin duen sinadura bilketaren inguruan, jada, 30.000 bildu dira, nire barne; departamendua dela-eta egin den eztabaida parte hartzaileen inguruan, ez zen mintzatu. Madrileko abenduko atentatua gertatu eta bake prozesua eten ez balitz Ipar Euskal Herriko aferak, beste era batean ikusi eta sakondu-

ko lirateke Frantzian. Argi da Euskal Departamenduaren auzia lotua dagoela zer bake lortzen ahal den Espainian. Hego Euskal Herria eta Espainiaren artean egoera politikoa konpontzen bada emaitzak ikusiko dira Iparraldean.

Garai batean Mitterrandek "bai" esan zion Euskal Departamenduari nahiz eta gero urratsik ez eman. Gogoan dut bai. Ni, lehen eta orain, aldekoa izan naiz. Nik Mitterranden segidan defendatu dut ideia hori. Eta eusten diot. Duela 25 urte ontzat nuen Euskal Departamenduaren ideia zergatik utzi behar dut orain?

Asmo hori ez da berria. Frantziako Iraultza izan zenetik euskaldunen aldarrikapena izan da belaualdiz belaualdi. Ez nator bat ideia errepublikanoa ez dela dioten horiekin; niretzat Euskal Departamendua eraikitzea beste ideia batzuk bezain errepublikarra da. Bi mendetako auzi bat guk konpontzen ez badugu, gure seme-alabek egingo dute. Baina egunen batean lortuko da. Hego Euskal Herrikoek bakea lortzen dutenean, orduan Iparraldean egoera lasaituko da eta Parisek beste eskuzabaltasun bat adieraziko du.

Akitaniako kontseilaria izateaz gain, nekazaritza, arrantza eta mugaz gaineko harremanen arduraduna zara. Antxoaren auzia zalaparta handia sortzen ari da.

Europak proposatuta, arrantzan, Hegoko Mendebaldeko Uren Aholku Kontseilu Erregionala sortu berri da: Portugal, Espainia eta Frantziako arrantzale guztiak hartzen ditu kontutan erakunde honek eta Bordelen egin zen iragan apirilean lehen biltzar nagusia. Nik ere lan egin dut sor zedin.

Zuzendaria Victor Badiola bizkaitarra da eta frantses egitura batek gidatzen ditu idazkaritza lanak. Antxoaren afera gunehorretan

eztabaida gai izan da eta uste dut emaitza baikorrak emanen dituela. Frantzia eta Espainiako arrantzaleen arteko gerra amaitu behar dugu, elkarrekin arraina eta arrantzaren etorkizuna zaintzeko.

Eurohiria eraikitzeko egitasmoa oso doa mantso. Gauzatuko al da?



Konfiantza handia nuen ETaren su-etenean, baita Zapaterok izan duen adorean ere. Uste on handia nuen emaitza ona lortuko zela


Biziki poliki doa aurrera nahiz eta ideia ona izan. Argi eta garbi, Hego eta Ipar Euskal Herriak bat egiten duten kostaldean metropoli bat sortzen ari baita. Baita aglomerazio handi bat ere: Donostiatik hasi eta Baiona ingururaino hiri bat sortzen ari da. Bada garaia aireportuaz, portuez... mintzatzeko; orenen zerbitzuez. Besteak beste, biltzar bat sortu beharko litzateke kostaldeko alkateekin metropoliaren oinarri zuzenak ezartzeko. Hori egin ezean zingo da Eurohiria eraiki.

Su-etenez asko hitz egiten da. Zer duzu esateko?

Konfiantza handia nuen ETaren su-etenean, baita Zapaterok izan duen adorean ere. Uste on handia nuen emaitza ona lortuko zela. Europak ere sostengua adierazi zion prozesuari. Baina eskuinaren jarrera eta ETak Bara-

jasko atentatuarekin adierazi zuen inpazientzia, ezin ditut konprenitu. Kostako da berriz ere konfiantza berreskuratzea. Aferan, batetik, ETak bere presoen etorkizunaren aterabideaz arduratu behar du. Bestetik, Euskadiren etorkizun politikoa, alderdi politikoen esku dago. ETak bide ona hartu zuen nahiz eta luzea eta zaila izan, beraz, berriz ere ekintzaren bat burutzera erabakiko balu, biziki tristea litzateke.





**Programa abertzale eta ezkertia-
ra defendatzen duen Euskal Herria Bai koalizioari zer etorkizun
kusten diozu?**

Hegoaldean zinezko bakea balitz, aste dut abertzaletasunak bere ordezkari handituko lukeela Ipar Euskal Herrian. Baina armak mintzatzen jarraitzen duten bitartean, abertzaleek Iparraldean ez dute gauza handirik eginen nahiz eta koalizioan pertsona zintzo eta lan-egile asko egon. Eta ekimen honekin zerikusirik izan ez arren, ETA-ren ekintzek gainerako egitasmo guztiak pozoitzen ditu.

Demoek lehen ekintza 2000. urtean egin zutenetik hainbat jarraiera egin dituzte, nahiz eta azkenaldian isilik egon. Zer iritzi duzu bultzatzen duten desobediencia zibilaren inguruan?

Segun batez Akitaniako Kontseilura etorri eta lehen solairuan dagoen iturburu batera kateatu diren Demoak. Une hartan berri Txinatik zetorren errepresen-



Hegoaldean zinezko bakea balitz uste dut abertzaletasunak bere ordezkari handituko lukeela Ipar Euskal Herrian

tazio bat errezibitu behar genuen. Esan zidaten beraiekin negoziatzeko: gero presidentearekin bildu ziren.

Biziki ondo hautatzen dituzte ekintzak nahiz eta beraien jarduna ez oso gogoko izan. Nire lan egiteko manera programa batzuk aurkeztea, jendearekin hitz egitea, konbentzitzea... da. Hego Euskal Herrian bakea balitz Demoen ekintzak beste ikuspegi baikorrago batekin ikusiko lirarteke. ■

Fresku-freskue

25 urterekin izan zinen lehen aldiz hautagai politiko (1978an).

Militante beti sentituko naiz. Herritarrek nahi duten leku horretan egingo dut lan. Beti izan naiz sozialista eta nire helburuekin kontsekuentea; esaterako, euskal departamenduaren aldekoa naiz..

...baita Laborantza Ganberarena ere.

Bai, nahiz eta Estatua trabak jartzen ari den. Frantziako administratzaile bat baino gehiagok mesfidantza handia du eta ez da askoren gogoko Laborantza Ganbera. Baina laborariek badute aski indar, borondate eta gogoia aurrera egiteko.

Mitxel Intxauspe politikari eskulindarra, arerloa edo laguna?

Hauteskundeetan lehia bat baino gehiago izan ditugu elkarren aurka. Bai diputatu izateko, bai Kontseilu Orokorrerako... Ia-ia urtero. Elkar ikusten dugunean lasai-lasai mintzatzen gara. Bera bizitza politikotik erretiratua dago, jada 82 urte inguru izanongo ditu-eta. Baina sasoiu dago garai bateko influentzia galduta bada ere. Esaterako, garai batean euskal departamenduaren aurkakoa zen oso, orain, uste dut aldekoa dela. Bestalde, Mitxel Intxauspe izeneko zenbait bankuren jabea ere bada.

"Agur Xiberua bazter guzietako xokhorik eljerrena" dio kantak.

Hala da dudarik gabe. Ipar Euskal Herriak inmigrazioa ez du arrotz. Baionako unibertsitatean ikasgai berriak eskaintzen ari dira azken urteetan: ingeniariaritz... Oraindik ez du aski ikasle unibertsitate autonomo bilakatzeko baina denborarekin helduko da. Gazte bat baino gehiagok Hego Euskal Herrian lan egiten du, baina Iparraldean, aeronautikako, mekanikako, informatikako... enpresak sortu dira azkenaldian. Laborantza produktu onak ere baditugu. Beraz, bada mugimendu ekonomikorik.

Salisetik Iruñera joan daitekeen bidearen aldekoa edo kontrakoa?

Erabat kontrakoa. Nafarroarekin lotura bat egitearen aldekoa naiz baina ez Ipar Euskal Herria erdi-erditik igaroko lukeen nazioarteko bide handi bat eraikiz. ■